

Eguzki-sistema exotikoa: eraztunak asteroide baten inguruan


Kariklo objektuak inguruan eraztunak dituela detektatu dute Brasilgo MCTI behatoki-ko astronomoek. Orain arte, Eguzki-sistemako planeta erraldoietan bakarrik detektatu dira eraztunak.

Nature aldizkarian eman dute aurkikuntzaren berri.

Asteroide eraztunduna

Zentauroen taldeko gorputz handiena da Kariklo (124 km-ko erradioa du), eta 1997an detektatu zuten lehenengoz (Jupiter eta Neptuno artean dauden objektu txikiei deritze zentauro; asteroideak diruditen arren, kometa gisa ere jotzen dute askok). Harez gero egin zaion jarraipenean, datu "arraro" batzuk detektatu dituzte astronomoek, eta, orain, badute emaitza arraro horien azalpena: Kariklok eraztunak ditu inguruan.

Aurkikuntza 2013ko ekainaren 3an egindako behaketa batzuen emaitza da. Egun hartan Kariklo izar baten aurretik igarotzekoa zen, eta Brasilgo MCTI behatoki-ko astronomoek teleskopio andana zuten prest ezkutatzeari ikusi ahal izango zen Hego Amerikako 1.500 km-ko eremuan barrena. Ezkutatzeari ohiko behaketa-teknika da astronomoentzat. Objektuak ezkutatzeko izarraren argian gertatzen diren aldaketak neurtuta, objektuari bu-



Chariklo zentauroaren eta haren eraztunen ilustrazio bat.
ARG.: LUCIE MARQUET.

zuko informazioa lortzen dute astronomoek. Kasu honetan, Karikloren tamaina fintzea eta itxura zehaztea ziren behaketaren helburua, baina Kariklok sorpresa bat zuen astronomoentzat.

Ezkutatzearen emaitzek agerian utzi dute Kariklok dentsitate handiko bi eraztun dituela inguruan: bata 7 km-ko zabalera du 391 km-ra, eta bestea 3 km-ko zabalera du 405 km-ra. Eratzunen hipotesiak ezin hobe egiten du bat bai ezkutatzeari behatutakoekin, bai eta Karikloren seinaleetan detektatutako anomaliarekin ere. Izan ere, 1997 eta 2008 artean, objek-

tuaren distira apaldu egin zen gradualki, eta, izotzaren seinalea ahuldu; 2008tik, berri, kontrakoa ari zen gertatzen. Eratzunek ondo azaltzen dute zergatik ikusten zen hori Lurretik, Kariklo sistemaren eta Lurraren arteko posizio/orientazio erlatiboak aldatu ahala.

Astronomoek ez dakite oraindik nola sortu zen halako eratzunen sistema ñimiño bat. Cornell Unibertsitateko Joseph A. Burns astronomoaren esanean, "Karikloren grabitate-indar erlatiboki txikia aintzat hartuta, ez dirudi oso probablea objektuarekin batera sortu izana eratzunak.

Seguru aski, gure ilargia sortu zuen talka katastrofikoaren pareko gertaera batek sortuko zituen eratzun horiek ere", idatzi du *Nature* aldizkarian bertan argitaratutako artikulubatean. Baina ez da aukera bakarra.

"Karikloren inguruan eratzunak detektatzeak zur eta lur utziko ditu planetei buruzko ikertzaile asko —bukatzen du artikulua—. Baina halakoak izan da beti planeten esplorazioa: ideia teoretikotatik gutxitan etorri dira aurkikuntzak eman dituzten bilaketak; alderantziz, halako aurkikuntzak izan ohi dira jakintza berrietarako bidea". ●

Etor zaitetz ezkutuko ingurune natural hau ezagutzera eta abenturaz gozatzera

Sobrongo abentura-zentroa

kanoa, kayak, paintball, mendi-ibilaldiak, orientazioa, mendi-bizikleta, arku-tiroa, igerilekuak...



Eskola-umeentzako prezio bereziak



01423 Sobron (Araba)

tel.: 945 359016

faxa: 945 359137

http: www.aventurasobron.com

h. el.: info@aventurasobron.com